

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

234/2020 Foru Agindua, urriaren 7koa, hasierako onespena ematen diona interes publikoko deklaratzeari "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" izeneko ingurumeneko jardura didaktikoaren proiektua, zeina gauzatuko baita Asparreneko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Arriolako Kontzejuan, Mendigutxi parajeko 1. poligonoko 377. lurzatian

Xabier Molinero Martínez jaunak eta Elena González Letelier andreak udal baimena eskatu diote Asparreneko Udalari, "Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa" izeneko ingurumeneko jardura didaktikoaren proiektua gauzatzeko, Asparreneko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Arriolako Kontzejuan, Mendigutxi parajeko 1. poligonoko 377. lurzatian.

Aurkeztutako memoria teknikoaren arabera, egin nahi den jardura nagusia tailerrak eta ikastaroak egitea da, baita pertsonekin lotutako bizipen esperientziak eta ingurumenarekin duten harremanari buruzkoak ere. Memoria horretan jasotzen denez, ikastaro batzuk egiteko, komenigarria litzateke parte hartzaileek bi edo hiru egun igarotzea bertan, eta, horretarako, lurzatian dagoen eraikina egokitu beharko litzateke. Eraikin horrek 118 m²-ko azalera eraikia du (gutxi gorabehera, 13x9), eta landa turismoko aterpetxe gisa egokituko litzateke. Era berean, ingurumen jardura didaktikoak egiteko, 100 m²-ko (7x14 inguru) azalera erabilgarria izango lukeen gela bat eraikitzea planteatzen da, baita 7x2 inguruko sarbide atari txiki bat ere.

Asparreneko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, proiektuak udalerriri horretako 1 poligonoko 377 lurzatiari eragiten dio. Lursail hori lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatuta, eta babes bereziko gisa kalifikatuta dago, bere natura balioagatik. Horrez gain, udalerrian indarrean dagoen hiri antolamenduko plan orokorrean aurreikusitakoaren arabera, ingurumen hezkuntzako jardura bat ezartzeko proposamena, bertaratutakoei ostatu emateko aukerarekin, landa ingurunean hirugarren sektoreko erabilera izanik, posible da, soilik baldin eta jardura interes publikokotzat jotzen badu Arabako Foru Aldundiak.

Espedientean jasota daude Arriolako Kontzejuaren txosten bat; Natura 2000 Sareko naturagune babestuaren gaineko eraginari buruzko txosten bat (martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuaren bidez izendatu zen naturagune hori kontserbazio bereziko eremu: KBE ES2110017 Barrundia Ibaia); URA Uraren Euskal Agentziaren txosten bat, eta Lautada Landa Garapenerako Elkartearen txosten bat.

Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txostena egin zuen irailaren 2an, eta bertan adierazi zuen 1 poligonoko 377 lurzatiaren lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoela eta, oro har, J.11 eremu gisa kalifikatuta, alegia, babes bereziko eremu gisa, bere natura balioagatik, bat etorritz 2017ko azaroaren 29ko ALHAOn (137. zk.) argitaratutako Asparreneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean xedatutakoarekin.

1.6.1.2 artikulua ("Babes bereziko J.1 eta babestutako J.2 landa eremuetako kalifikazio globalaren bidez baimendutako eraikuntza erabilerak eta jarduerak"), 3. puntuan ("Erabilera bat baimentzeko baldintza orokorrak"), a letran, honako hau ezartzen du: "Erabilera bat plangintza orokor honetako kalifikazio globalaren bidez zuzenean baimendu ahal izateko, beharrezkoa da artikulua honetan baimendutakoen artean egotea".

Artikulu horren 4. puntuan (“Bere balio naturalagatik babes bereziko eremua den J.11 eremuan baimendutako erabilerak”), b letran, honako hau xedatzen da: “Ikerketa eta dibulgazio zientifikoarekin, ingurumen hezkuntzarekin eta/edo gunea bera kontserbatu eta babestearekin lotutako interes publikoko jarduerak baimendu ahal izango dira”.

Artikulu horren 4. puntua eta memoriaren II.5.2 eta III.1.2 atalak ikusita, argi geratzen da Asparreneko udalerriko Natura 2000 Sareko guneak barne hartzen dituen lurzoru urbanizaezinen babes bereziko eremu horretan eraikuntza erabilerak debekatu direla. Eremu horretan ez daude baimenduta 1.6.1.1. artikuluko (“Babes bereziko J.1 eta babestutako J.2 landa eremuetako kalifikazio orokorrak zuzenean baimendutako erabileren sailkapen orokorra”) b) puntuan aipatutako interes publikoko eraikuntzak eta instalazioak, lurzoru urbanizaezineko beste eremu batzuetan baimenduta daudenak.

Ondorioz, aplikatu beharreko hirigintza araudiak ez du baimentzen oin berriko eraikinak eraikitzea ingurumen hezkuntzarekin lotutako interes publikoko jardueretarako, ez eta lehendik dagoen eraikina landa turismoko aterpetxe gisa erabiltzea ere. Ingurumen hezkuntzarekin lotutako interes publikoko jarduerak baimentzekotan, aire zabalean edo lehendik dagoen eraikinean egitekoak izan behar dira.

Irailaren 7an, txostena helarazi zitzaion udal eskatzaileari, hilabeteko epean egoki zeritzona alega zezan, eta ebazteko eta jakinarazteko epea eten zen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.a artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2020ko irailaren 16an, jakinarazpenari erantzuteko idazki bat jaso zen, Txelo Auzmendi Jiménez alkateak igorria. Auzmendi andreak Asparreneko Udalak irailaren 9an hartutako erabakia egiaztatzen duen ziurtagiria erantsi zuen. Ziurtagiri horretan honako hau jasotzen da: “... Udalari emandako alegazio izapidearen barruan, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du ados dagoela interes publikoko deklarazioarekin, hau da, Naturarekin bat: Arabako ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa’ proiektuaren interes publikoa deklaratzearekin, Arriolako herriguneko 1 poligonoko 377 lurzatian, aire zabalean edo lehendik dagoen eraikinean ingurumen hezkuntzako jarduerak egiteko”.

ONARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, “lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren”.

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea “Naturarekin bat: Araban ingurumena zaintzeko eta mantentzeko espazioa” izeneko ingurumeneko jarduera didaktikoaren proiektua interes publikokotzat deklaratzeko duen espedienteari. Proiektua Asparreneko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Arriolako Kontzejuan, Mendigutxi parajeko 1 poligonoko 377 lurzatian egingo da, eta espedientea Asparreneko Udalak izapidetu du.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit hamar eguneko, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesa dutenek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Izapide egintza ez kualifikatuaren izaera duen foru agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO